

Ordizian, 2010eko abenduaren 3an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN**, honakoak bertaratu zirelarik

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jon Txurruka Etxezarreta jauna	PNV taldea
Alejandra Iturrioz Unzueta andrea	PNV taldea
Belén Maiza Urrestarazu andrea	EA Taldea
Iban Asenjo Garde jauna	EA Taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Jose J.Lopez Fernandez jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Mónica Marañón Basarte andrea	PSE/EE (PSOE) taldea
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Carlos Gonzalez Astiz jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

Miren Auzmendi Urkiola andrea	PNV taldea
Iñigo Manrique Cía jauna	PP taldea

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi Jauna

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra andreak ez etorri izana arrazoitu du.

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

.- Leunda jauna joan egin da 4. puntuan, eguneko gai-zerrendako 7. puntua amaitu ondoren.

.- Txurruka jauna, eta Marañón eta Iturrioz andreak joan egin dira "Galde-eskeen" puntuan.

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2010eko urriaren 29an egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.
.....**3.orr.**
- 2.- Azaroaren 16an ez-ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.
.....**4.orr.**
- 3.-Azaroaren 25eko emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta,
Aitorpen Institutuzionala.
.....**9.orr.**
- 4.-Oiangualdea b.20.1. lursaileko P.1. azpilursailaren esleipenerako Klausula ekonomiko-
administratiboen Plegua onartzea
.....**12.orr.**
- 5.- 2010eko aurrekontuan kreditu aldaketen espedientea.
.....**14.orr.**
- 6.-EULEN servicios sociosanitarios SAri behin-behineko esleipena, etxez etxeko laguntza
programa kudeatzeko programarako.
.....**14.orr.**
- 7.- ELKARGIk Oiangurenen kontzesioaren ebazpenaren aurka ipinitako administraziorekiko
auzien aurkako errekurtsoren berri ematea.
.....**14.orr.**

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK

GORABEHERAK

9.30etan batzarra eten da, udal arkitektoak eguneko gai ordeneko 4. puntuari buruzko zenbait kontu argitu ditzan.
10.15etan berriro ekin zaio saioari.

GALDE-ESKEAK

Udaltzain bat kontratatze prozedura.
Asenjo jaunak udaletxera sartzeko txartela eskatu du.
Eraikin eta etxebizitzetako irisgarritasun lanak egiteko laguntzen ordenantza.
.....**22.orr.**

ORDUTEGIA:

HASIERA ORDUA: 8,10

BUKAERA ORDUA: 11,55

Jarraian eguneko lehen puntuaren berri eman da.

1.-2010eko abenduaren 3ko ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2010eko abenduaren 3an ohiko deialdian egin zen bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Maiza and.

Euskarazko aktako 6. orrialdean akats ortografiko txiki bat dagoela jakinarazi du, "Oiangu biziriki epaiketa gastuak barkatzeko mozioa" 3. puntuan, akordio proposamenaren 5. paragrafoan, "Alderdi politikook" esan behar duen tokian "Alberdi politikook" azaltzen da.

Gonzalez jn.

Gaztelerazko aktaren 7. orrialdean, 3. puntuko eztabaidan, bere lehenengo mintzaldia, 4. paragrafokoa, oker jaso dela jakinarazi du. Paragrafo hori honela idatzi beharko litzateke: Bere iritziz, jende ugari mobilizatzen duen plataforma da. Beste entitate eta taldeei diru-laguntzak ematen zaizkie. Bere iritziz, kontua ez da plataforma itotzea. Aipatu du lortutako epaiengatik gobernu-taldearen gehiengoak izan duen pozaren ondoren, Ordiziako herritarrei postontzi bidezko informazioa helarazi zaiela, eta horrek 4.000 €-ko kostua izan duela eta bere ustez 'Oiangu Bizirik' plataformari ezarri zaizkion kostu judizialak barkatzeak merezi duela eta Udalak jarrera eskuzabala izango lukeela.

Dubreuil jn.

Jakinarazi du gaztelerazko aktaren 8. orrialdean, 3. puntuan, bere mintzaldia, 5. paragrafoa, ez dela ongi jaso. Paragrafo hori honela idatzi beharko litzateke: "Udalaren funtzioa hori dela uste du herritarren botoek emandako ordezkariak demokratikoan oinarrituz".

Interbentzio bereko 7. paragrafoak ez du behar bezala jasotzen berak esandakoa. Honakoa esan beharko luke: " Alderdi mailan, egia da Tokiko Batzordeak egiten duela zerrenda eta ondoren Eskualdeetako Lantaldeak berresten duela, baina azkenean, herritarrek aukeratzen dituzte hauteskundeetan."

Idazkari andreak

Zehaztutako zuzenketak egin ditu.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (EAJ/PNV 2, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 1 (Txurruka jauna bertan egon ez zenez abstenitu egiten da).

Beraz Alkateak aipatutako aldaketekin proposamena onartutzat eman du.

Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren bigarren puntuaren berri eman du:

2- 2010eko azaroaren 16an ez-ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena

“2010eko azaroaren 16an ez-ohiko deialdian egindako Batzordearen akta-zirriborroa onartzea.”

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta: Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (EAJ/PNV 3, EA 1, PSE-EE (PSOE) 2, EB/Aralar 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 2 (Asenjo jauna eta Marañon andrea, ez zirelako bileran egon).

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.

Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hirugarren puntuaren berri eman du:

3.-Azaroaren 25eko emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta, Aitorpen Instituzionala.

Proposamena

Aurten ere, azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, indarkeria sinboliko, leun, maltzur eta ia ikusezin horretan jarri nahi dugu arreta, zeinaren gainean eraikitzen baita emakumeen identitatea eta, era berean, emakumeen aurkako indarkeria fisikoa ahalbidetzen baitu.

Indarkeria sinboliko hori ideia okerretan oinarritzen da, baina ideia horiek oso zabaldua daude eta naturalizat hartzen dira; esate baterako, ordu eta leku jakin batzuetan emakume izatea arriskutsua dela; sexu-eraso bat baino ezer larriagorik ez dagoela barneratzea baina emakumeak ezin direla eraso horietatik babestu; beldur izaten ikastea eta hauskor sentitzea, babestua izan beharra sentitzea, nahiz eta inork ez adierazi zeri edota nori izan behar zaion beldur; lotsatuta edo errudun sentitzea sexu-eraso bat jasan izanagatik edota tratu txarrak jasan izanagatik, eta nahiago izatea hori justifikatzea edo ukatzea, gaia onartu edo kritikatu beharrean; emakumeen sexu-askatasuna probokazio sexuala dela ulertzea, eta gizon batzuen jokaera erasotzaile potentziala justifikatzen duena uste izatea; edo pentsatzea bikote barruko kontrola eta jeloskortasuna maitasunaren parte direla, eta bikotea, saiatuz gero, maitasunagatik aldatu daitekeela.

Hori guztiori dela eta, urte osoan zehar jarri behar dugu arreta gure udalerriko nerabe eta gazteengan, baina are gehiago, estrategikoki, egun hau hurbiltzean, 2009an egin genuen bezala. Modu horretan, indarkeriaren formarik leun, naturalizatu eta sozialki onartuenak ezagutu ditzaten, eta horren aurrean hain hauskorrak izan ez daitezten.

Horretarako, BERDINSAREAren iazko kanpainan erabilitako goiburua berreskuratu nahi dugu: BELDUR BARIK. Zeren “Beldur barik” esateak beldurra ukatzen du, emakumeen kontrol-estrategia gisa. Era berean, kontuan hartuta emakume izatea arrisku potentziala dela, “Beldur barik” esateak aitortzen du Udal honek aukera eman behar duela emakumeak zenbait tresnaz jabetzeko, gaitz hori prebenitzeko eta norik bere burua defendatzeko.

Borondate hori gure udalerrietako exigentzia inperatibo bihurtu beharko litzateke.

Modu horretan, gazteei zuzeneko indarkeria fisikoa prebenitzen lagunduko diegu, baina, gainera, agente aktiboak izatera animatuko ditugu, emakumeenganako edozein indarkeria mota errefusatu dezaten eta horren aurka modu indibidual zein kolektiboan egiteko estrategiak izan ditzaten.

Horren guztiaren jakitun, Udal honek

KONPROMISO HAU HARTZEN DU: bere eskumenen esparruan eta indarrean dagoen legedia aplikatuz, udal politika aktibo, integral eta koordinatua garatzea berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka, eta arreta berezia jartzea emakume gazte eta nerabeek jasaten duten indarkeriarengan, modu eraginkorrean baliatu daitezten beldurrik gabe bizitzeko eskubideaz eta indarkeriaren aurka defendatzeko aukeraz.

KOMENIGARRIA DA urtean zehar zenbait ekimen abiaraztea. Horrela, emakumeen partaidetza aktiboarekin, beldurrari eta hauskortasunari aurre egiteko behar diren baliabideak jarriko dira euren esku, euren jabekuntza ahalbidetuz; era berean, gazteekin batera egin beharreko lana bultzatuko da, portaera sexistak prebenitzeko eta eraso matxisten aurrean jokaera aktiboa izan dezaten animatzeko.

ANIMATU EGITEN DITU herritarrak, eta, oso modu berezian, herriko neska-mutilak, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna (azaroaren 25a) dela-eta egingo diren ekintzetan parte hartzera, indarkeria horren aurka modu publikoan agertzera, eta BERDINSAREAK kanpaina honen barruan antolatu duen Beldur Barik! jaialdi artistikoan parte hartzera (jaialdia azaroaren 27an izango da, Bilbon).

Puntu lila erabiltzeko GONBIDAPENA EGITEN DU, emakumeenganako indarkeriaren aurkako sinboloa den aldetik. Eta, hasteko, puntu lila bat jarriko du udaletxearen eraikin nagusian, ondo ikusten den leku batean eta modu iraunkorrean.

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Urtero data hauetan onartzen den adierazpen bat dela jakinarazi du, emakumeen aurkako indarkeria salatzeko.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 3, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.

Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.-Oiangualdea b.20.1. lursaileko P.1. azpilursailaren esleipenerako Klausula ekonomiko-administratiboan Plegua onartzea

Proposamena

Horrekin batera 2010eko urriaren 28an "Oiangualde-30" HIEko b.20.1 lursailaren indibisioaren zatiketa idatziaren berri eman zuten, eta bertan 3 azpilursail sortu ziren, P1, P2 eta P3, eta Ordiziako Udalari

dagozkio P1 eta P2 azpilursailak, lursailaren %73,92eko kuota kontuan izanda, eta Goierriko Herrien Ekintzari dagokio P3 azpilursaila, %26,08ko kuotarekin.

Sektorerako onartutako Plan Partzialean zehazten diren erabileren arabera, eta Lurzoru eta Hirigintzako ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 116 artikulua arabera, Xehetasun Azterketan sortutako P1 azpilursaila udalaren lurzoru ondarearen zati da, eta ondasun hauen besterentzea lehiaketa bidez egin behar da.

Aurreikusitako erabilera eman nahian eremuaren sustapena bultzatzea da udalaren interesa, P1 azpilursailaren jabetza besterentzea egoki ikusten da ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoa, laguntza teknologikoa edota edozein ezagutza eremuren zabalpena sustatzeko zentro bat eraikitzeko.

AKORDIO PROIEKTUA

1.- “Oiangualde-30” HIEko b.20.1 lursaileko P1 azpilursaileko jabetza besterentzeko baldintza ekonomiko-administratiboen Plegua onartzea, ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoa, laguntza teknologikoa edota edozein ezagutza eremuren zabalpena sustatzeko zentro bat eraikitzeko. Hori guztia teknologia, kalitatea eta lehiakortasuna sustatzeko helburuarekin.

2.- Besterentze honetako baliabide edo diru-sarrerak Lurzoruetako Udal Ondasunetara pasatzea.

3.-Lehiaketaren esleipena egiteko eskumena ematea Alkate jaunari.

4.- Foru Aldundiko Finantza eta Ogasun Sailari (erakundeen arteko konpromisoak) jakinarazi aipatutako besterentzearen esleipena.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Alkate in.

b.20.1. lursailaren zatiketaren berri eman du, 3 azpilursailatan banatuko da, P1,P2 eta P3, lehenengo biak Udalarenak dira eta hirugarrena fundazioarena.

Idazkari andreak

Deialdiarekin batera zinegotzietan bidali zitzaizen plegu proposamenak aldaketa txikiren bat duela jakinarazi du, eta azaldu egin du

1.- En la página 2 del pliego, en el punto nº.2 “destino de la subparcela y del edificio a construir en ella”, en el párrafo nº.4, la forma de cálculo del precio máximo de la subparcela en caso de ejercitar el Ayuntamiento el derecho de opción de compra será:

“El precio de la subparcela (230.000.-€, actualizado con el IPC o índice equivalente acumulado en el momento de la transmisión + IVA) más los gastos de urbanización que le corresponden conforme al proyecto de urbanización en el sector, los gastos de urbanización privado de la parcela, así como los gastos de las obras de abastecimiento necesarias para la edificación correspondiente a la parcela, todos ellos en su cuota de participación del 36,96%, corregidos con la depreciación o mejora que hayan experimentado hasta el momento.

También se valorará el coste del edificio de conformidad con las reglas legalmente establecidas a tal fin.

2.- 5.orrialdea, 5.2.puntuan eta 4.parrafoa honela jasota geratuko da.:

Prestatu den aurrekontuaren arabera, obren kostua LAUREHUN ETA HOGEITA LAU MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA BERROGEITA HEMERETZI ZENTIMO da (424.457,59 euro) , eta, hortaz, zenbateko horren %36,96 EHUN ETA BERROGEITA HAMASEI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI EURO ETA BERROGEITA HAMABI ZENTIMOKO da (156.879,52 €), obren behin betiko likidazioari kalterik egin gabe.

3.- 14.orrialdeal, 15.puntuan eta 15.2.apartadoan 2.parrafoa, honela geratuko da:

Prestatu den aurrekontuaren arabera, obren kostua LAUREHUN ETA HOGEITA LAU MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA BERROGEITA HEMERETZI ZENTIMO da (424.457,59 euro) , eta, hortaz, zenbateko horren %36,96 EHUN ETA BERROGEITA HAMASEI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI EURO ETA BERROGEITA HAMABI ZENTIMOKO da (156.879,52 €), obren behin betiko likidazioari kalterik egin gabe.

Maiza andrea

Ez dago ados Udalak lursaila amaitzeko beharrezkoak diren hornidura obren gastuak ordaintzearekin, 2 azpilursailari dagokion partaidetza kuotan. Jakinarazi du ez zirela horretan geratu. Berak ulertu zuen lursailaren hornidura obrei dagozkien 424.000€ak P1 azpilursailaren esleipendunak ordainduko zituela osotasunean.

Dubreuil jn.

Berak Maiza andreak ulertu zuena ulertu zuela azaldu du. Puntu hau argitzea oso garrantzitsua dela esan du, eta diru-operazio honek Udalarari zer ekarriko dion argitzea, eta nola ordainduko den.

Idazkari andreak

Jakinarazi du berak uste duela pleguek b.20.1. lursailaren azpilursailak bereganatzen dituzten urbanizazio-kargak jasotzen dituztela, negoziatu den bezala.

Komenigarria ikusten da udal arkitektoen azalpenen zain egotea, eta Udalera etortzeko bidean dagoenez, puntuaren eztabaida eta bozketa atzeratu da.

Gai ordeneko beste puntuak aztertuko dira.

Jarraian, Alkateak hurrengo puntuari heldu dio.

5.- 2010eko aurrekontuan kreditu aldaketen espedientea.

Proposamena

2010eko Aurrekontuaren exekuzioa aztertu da eta espedientean azaltzen diren partidetakoa kreditua handitzeko beharra ikusi da, zehazten diren arrazoiengatik.

Aldi berean, badira partida batzuk behar adina baino kreditu gehiago dutenak.

Espedientea bi zatitan zatitu da. Bat, gastu arruntei dagokiena da, eta bestea inbertsio gastuei dagokiena. Bata zein bestea antzeko gastuen murrizketekin finantzatzen dira.

PROPOSAMENA

2010eko aurrekontuan Kreditu-transferentzien espedientea onartu, guztira 980.775,00 euro.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Alkate jn.

Proposatutako kreditu aldaketen berri eman du, kopurua 980.775 €ra igotzen da.

Duela 2 edo 3 aste Gai Arrunten Batzordean eman zuen aipatutako aldaketaren berri, asteazken horretan bertan Kontu-hartzaileak eman zion zerrenda baten bidez, eta aurreko gastuen zerrendari batu zitzaion.

Jakinarazi du ez dutela Jubilatuen Etxeko klimatizazioaren aurreinstalaziorik egin.

Dubreuil jn.

Alkate jaunari gastu batzuei buruz galdetu dio, zehazki "Nazioen Eguna" zela eta Trevijanoko zelaian jarri zituzten hondakinentzako kontainerren gastua.

Horrekin irisgarritasuna hobetzeko obrei diru-laguntzak murrizten zaizkiela uste du. Bere alderdiak Gobernu Batzordean irisgarritasun arlorako diru-laguntzen proposamena aurkeztu zuen eta krisiaren aurkako zenbait neurri, eta orain irisgarritasunera bideratutako partidetatik dirua kentzen dela egiaztatu ahal izan du.

Horretarako beste partidarik ez ote dagoen galdetu du.

Kontu-hartzaile jaunak

Ezetz erantzun dio.

Dubreuil jn.

Jakinarazi du proposamenaren alde bozkatuko duela beste partida batzuetatik finantzatzen bada jaitsiera hori. Bere botoa aldekoa izango dela esan du, Udalbatzak horretarako konpromisoa hartzen badu behintzat.

Asenjo jn.

"Zuhaitz egunari" dagozkion gastuak urte hasieran egiten direla jakinarazi du eta proposatutako aldaketetan azaltzen dela orain. Lehenago jakin eta esan zitekeela uste du.

Kontu-hartzaile jaunak

Berak dagoeneko partidarik ez duela jakinarazi dio eta LAIAren kontratuan %20ko igoera izan dela hasieran sinatutako kontratuarekin alderatuta.

Leunda jn.

Bere ustez, Osoko bilkuran onartzeko ekartzen diren gaiak alde zuzenetik adostu beharko lirateke Gobernu Batzordean.

Proposamenaren aurka bozkatuko dutela jakinarazi du, aurrekontuetan bezala.

Ez ditu ulertzen onartzen diren kreditu aldaketa guztien arrazoiak.

Esan du ELKARGIri egindako abala praktika kantzako sare eta zutoinak konpontzeko erabili dela. Gastu hauek egin ez balira diru gehiago geldituko litzateke beste gauza batzuetarako.

Bideen asfaltatze lanei dagokienez, lanak bukatu diren galdetu du, bi edo hiru eremu oraindik nahiko gaizki daudela uste baitu.

Bestalde, proiektuak egiteagatik arkitektoari ordaintzen zaionari buruz galdetu du.

Alkate jaunak eta Idazkari andreak informazioa eman diote.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 3, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3)

Kontrako botoak: 2 (IU/EB-ARALAR)

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.

Jarraian, Alkateak hurrengo puntuari heldu dio.

6.-EULEN servicios sociosanitarios SAri behin-behineko esleipena, etxez etxe laguntza programa kudeatzeko programarako.

Proposamena

Kontratazioa egiteko 2010SCON0007 espedientearen berri eman dute, prozedura ireki bidez eta ohiko tramitazio bidez izango da, Etxez etxe laguntza programa kudeatzeko, deialdia 2010eko abuztuaren 9ko 715 Alkatetza Dekretu bidez onartu zen.

- 2010eko irailaren 15ean egindako plika irekiera saioko aktan, onartutzat ematen dira jarraian adierazten diren proposamenak:

GOXARA, S.L.

BIZITZEN Fundazioa

KONFIA Servicios de Conciliación, S.L.

EULEN Servicios Sociosanitarios, S.A.

- Kontratazio mahaiak 2010eko azaroaren 12an egindako bilkurari dagokion aktan, Adituen Batzardeak egindako proposamenen balioespen-txostena aztertu ostean, EULEN Servicios Sociosanitarios SA enpresaren aldeko esleipenaren proposamena jasotzen da, orokorrean hartuta eskaintzarik onuragarriena baita.

Gauzak hala, Plenorako Gaienean Batzardeak honako hau proposatzea erabaki du:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- EULEN servicios sociosanitarios SAri behin-behineko esleipena egitea, etxez etxe laguntza programa kudeatzeko programarako.

- Arreta ordua, lanegunak: 16,88 euro/ordua + %4 BEZ
- Arreta ordua, asteburuak eta jai-egunak: 21,95 euro/ordua + %4 BEZ

2.-Esleipena behin betikoa izan dadin, esleipendunak hurrengoak bete beharko ditu hamabost egun balioduneko epean, akordio honen jakinarazpena jasotzen den egunetik hasita:

a) Zerga eta Gizarte segurantzaren betebeharrak betetzen dituela ziurtatzen dituzten agiriak aurkeztu, egiaztagiriak proposamenarekin batera aurkeztu ez baditu behintzat, eta horrekin batera kontratuaren exekuzioari erantsi behar dizkion bitartekoen antolaketa ziurtatzen dituzten agiriak.

b) 17.571,56 euroko behin betiko bermea eratu.

3.- Behin betiko esleipenerako etxez etxeko laguntza programaren kontratazio organo gisa Osoko bilkurari dagozkion eskumenak eman Alkateari.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Alkate jn.

Azaldu du urte eta erdiz eman duela zerbitzua ARQUISOCIALEK eta Udalaren ustez emandako zerbitzua ez da guztiz egokia izan, lizitazioa berriro eman zitzaien berdinari eta ondoren eskaintza desberdinak aurkeztu ondoren eta denak baloratu ondoren, EULENi esleitu zaio.

Dubreuil jn.

Alkate jaunak azaldu duen bezala, badirudi Arquisocialen kontratua deuseztatu dela. Honek emandako zerbitzua, esleipen berria egin arte jarraitu duena, hobetzen joan da, baina Kontratazioa Mahaiaren Batzorde Teknikoak proposamen berriekin egindako balorazioei esker, zerbitzuaren esleipendun berria EULEN Servicios SocioSanitarios SA izan da.

Udalerrian lokal bat lortu du, zerbitzu hobea eskaini ahal izateko, aurreko enpresako langileak subrogatu ditu eta dirudienez gauzak bide onetik doaz.

Gonzalez jn.

Leunda jaunak eskatu izan duen bezala, berak ere Kontratazio Mahaietan parte hartzen uzteko eskatzen du.

Beste behin ere "externalizazioaren" edo udal zerbitzuen zeharkako kudeaketaren aurkako jarrera erakutsi nahi dute.

Dubreuil jn.

Kontrako jarrera hau batzuetan bai eta beste batzuetan ez dela ematen erantzun dio, interesen araberakoa dela. Ez du ulertzen.

Leunda in.

Prezioa/ordua bera den galdetu du, eta Dubreuil jaunak baietz erantzun dio, KPIren urteko berrikuspenaren arabera.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 3, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3)

Kontrako botoak: 2 (IU/EB-ARALAR)

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.

Jarraian, Alkateak hurrengo puntuari heldu dio.

7.- ELKARGIk Oiangurenen kontzesioaren ebazpenaren aurka ipinitako administraziorekiko auzien aurkako errekurtsoren berri ematea.

Alkate in.

ELKARGI S.G.R.k administrazio kontzesioaren ebazpenaren inguruko Udal erabakiaren aurka eta abalaren exekuzioaren aurka ipinitako errekurtsoren berri eman nahi dio Osoko Bilkurari.

Gonzalez in.

Idazkari andreak aipatutako errekurtsoren arrazoitze juridikoaz galdetu dio.

Idazkari andreak

Jakinarazi dio.

9.30etan batzarra eten da.

10.15ean eta udal arkitektoa bertaratu denean Bilkurari hasiera eman zaio eta 4. puntua aztertu da.

4.-Oiangualdea b.20.1. lursaileko P.1. azpilursailaren esleipenerako Klausula ekonomiko-administratiboen Plegua onartzea

Arkitekto jauna

Negoiazioen berri eman du.

Lursaila besterentzeko erabakia hartu denean, azalera eskubidearen lagapenez aritu beharrean lursailaren funtzionamendurako hornidura obrak hiru azpilursailen artean ordaintzea negoziatu da, bakoitzaren partaidetza kuotaren arabera.

156.879,52 € kanpoko hartuneena bakarrik da.

Txurruka jna.

Berak ulertu zuen 424.000 €ak P1 azpilursailaren esleipendunak ordaindu behar zituela osorik, eta ez orain erabaki dena, alegia, 3 azpilursailen artean proportzionalki banatzea.

Alkate jn.

Jakinarazi du 156.000 € gure gain hartu dezakegula, Udalaren jabetzako P2 azpilursailari dagokion kuotarena, eta aipatutako azpilursailaren etorkizuneko esleipendunari gastu hauek erantsi.

Gonzalez jn.

Esleipendunak kanpoko hartuneei dagozkion 424.000 euroak ordaindu beharko lituzkeela uste du, berak orain behar dituelako eraikitzeko, gehi lursailaren balioa.

Arkitekto jauna

Honako hau esan du:

- Azpilursailaren balioa 975.000 €koa da.
- B.20.1. lursailaren urbanizazio gastuak hirigintza proiektuan 507.802 €koak dira eta %36,96 187.687,97 € dira.
- Lursailaren barneko urbanizazio gastuak 685.327 €koak dira eta %36,96 253.296 €.
- Kanpoko urbanizazio gastuak 424.858 €koak dira eta %36,96 156.879 €.
- Bidegorriko zatiaren gastuak 84.000 € eta %36,96 31.096 € dira.

Azpilursailaren balioa kentzen badiogu, hau da, 975.000 €ei kontzeptu desberdinetako urbanizazio gastuak kentzen badizkiegu, 350.000 € dira, azpilursail urbanizatuaren balio gisa.

Azpilursaila besterentzeko lizitazioa 230.000 €koa bada, 120.000 €ko hutsunea dago, eta bere ustez hori da politikoki baloratu behar dena, mota honetako zentro bat aipatutako azpilursailan ipintzeak 120.000 € balioa duen ala ez.

Maiza and.

Etorkizunean bizkorrago ibili beharko dugula esan du, P2 azpilursailarekin gauza bera gerta ez dadin.

Gonzalez in.

P2 azpilursaila P1 azpilursailaren baldintzetan esleitzea zaila izango dela uste du.

Azalera eskubidearen aukera askoz hobe zela uste du, 75 urtera 14.000 €ko urteroko kanonarekin. Salmentarekin 120.000 € oparitzen direla uste du.

Maiza and.

P2 azpilursailaren esleipen baldintzak zehaztearen garrantzia azpimarratu du berriro.

Asenjo in.

Esan du Osoko Bilkurara gaiak ezin direla horrela ekarri.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (PNV 3, EA 1, PSE-EE (PSOE) 2)

Kontrako botoak: 1 (IU/EB-ARALAR)

Abstentzioa: 2 (Asenjo jauna, EA 1 eta Marañon andrea PSE-EE (PSOE) 1),

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.

Idazkari andreak

Orain Hitzarmen Batzordea osatzea egokitzen dela azaldu du, jabe bat baino gehiago dagoelako eta Legeak dioen bezala Batzordea osatzea ezinbestekoa da urbanizazio obrekin hasteko.

Jarraian, Alkateak hurrengo puntuari heldu dio.

8.-Galde-eskeak.

- Asenjo jaunak azaldu du oso gaizki iruditzen zaiola Udaltzaingoarekin gertatzen ari dena.

Lehen ere aipatu zuen ez zitzaiola ondo iruditzen praktketan dagoen Agente Lehenarekin bilerak egitea zerbitzua berrantolatzeke.

Arkauten formazioa jasotzen ari den Aitor Escalante ordezkatzeko pertsonaren kontratazioari buruzko azalpenak eskatu dizkio Alkateari.

Alkate jaunak esan dio, Irune Gorospe, lehen ere ordezkapenak egin zituenak ezin zuela une horretan. Langile Batzordearekin hitz egin zuen, herriko norbaitek, lan hori egiteko prest zegoenak eta hizkuntza eskakizuna ez zuenak, euskara ezagutzaren inguruko azterketaren bat egin zezakeen, beste noizbait egin den bezala.

Alkate jaunak adierazi du Pedro Irastoza jaunak ez zuela oztoporik ipini.

Hala ere, kontratu honek arazoak sortu zituela eta, pertsona honi kontratua eten zitzea aste betera.

Ondoren, beste udalerrri batzuetako udaltzain lan-politsetara jo genuen. Zarauzko lan-politsetan libre zegoen lehena proposatu zen, baina ordezkapen bat sortu zitezaion Zarautzen bertan, eta beraz, zerrendako bigarrena kontratatzea proposatu zen.

Maiza andreak osoko bilkuran azaldu du, Alkate jaunarekin izandako bileran, ez zuela kontratazio horren aurka joko, baina gaiari buruzko txosten bat prestatuko zuela.

Alkate jaunak adierazi du normalean Saileko Arduraduna arduratzen dela ordezkoaren hautaketaz.

Maiza andreak erantzun dio esanez ezin dela nahierara inor izendatu.

Asenjo jaunak esan du prozedura akatsez beteta dagoela. Aldez aurretik gauza jakina zen praktiketako Agente lehena 3 hilabeteko formazio ikastarora joan behar zuela.

Lehen akatsa, nahierara izendatzea, Administrazio Publikoetan prozedurak publiko izan behar duenean eta publikitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun irizpideak bete behar dituztenean. Horrez gain, nahierara izendatutako pertsonak ez du beharrezkoa den hizkuntz eskakizuna betetzen.

Dubreuil jaunak Alkate jaunari azaldu dio beharbada Saileko Arduraduna dela ordezkatzeko prozeduraz arduratzen dena. Bere sailean Koordinatzailea ere horretaz arduratzen da, baina IVAP-HAEEko, Foru Aldundiko, beste Udaletako eta INEMeko lan-politsetan bitartez bideratzen dute ordezkapena, eta beharrezkoak diren baldintzak betetzen.

Maiza andreak uste du fede txarrik gabe jokatzek ez duela inor bere erantzukizunetatik aldentzen.

Gainera, kontratatu eta gero kontratua eten zioten pertsona horrek berak, kalean "eskerrak" eman dizkio berari espresuki kalean bertan.

Alkate jaunak jakinarazi du berak ez ziola pertsona honi azaldu zergatik eten zitezaion kontratua eta gaia bideratuta dagoela azaldu du.

Asenjo jaunak Alkate jaunari esan dio gaia erabat bideratzeko, kontratua etendako pertsonari idatzi bat egin beharko litzaiokeela, eta bertan azaldu arazoa ez dela Euskara Saileko Zinegotziarena izan, baizik eta ordezkatzeko prozeduraren tramitazioko akats bat.

- Asenjo jaunak Udaletxean sartzeko txartela eskatu du.

Alkate jaunak berarekin hitz egingo duela esan du.

- Dubreuil jaunak gogorarazi du eraikinen irisgarritasun obrentzako diru-laguntzen Ordenantzaren zirriborroa aspaldi aurkeztu zuela. Horrekin batera, irisgarritasun obra hauentzako "interes sozialaren aitorpena" eskatu du.

Alkate jaunak erantzun dio esanez hurrengo osoko bilkuran aztertuko dutela.